

## LARATZ ONDOTIK KONTU KONTARI

Beheko suak etxeko bihotz beroa dirudi. Neguak gordinki dirauenean, azti-indar erakargarria izan ohi du suak. Laratz beltza dilin-dan, kedarreztaturiko kapela haundiaren itzalpean, epelgiro goxoa dago istorio miresgarri eta sorgin ipuinetarako. Sorginak, laminak, basajaunak, iratxoak... kearen eta irudimenaren hegaldi polit eta inoxoetan nahasiko dira antzoki berezi horretan.

Suaren suzko mihiak eraso-dantza sorginduan goiak zulatu nahiean ari dira erritmo berezi horretan kristitinak joz. Laratz ondoan suaren higidura harrigarria da nagusi; han dena da aho, dena sabel gori, harrapatuala oro errauts bihurtzen delarik. Gerora,ugar goizale grinatsua bere baitara bildu da, bere bero izpiritua errauspean gorde nahirik. Ilenti gorien kraxkada kexutia entzun daiteke haustean; bere gordelekuan ezkutatu den suak oraindik bere ñabardurazko keinuak egiten dizkigu. Ilentia, kraxkada artean, suak kuadratueta markaturik, hautsiz doaz. Laratz ondoan aldaketa harrigarrien josta-toki da: bizi, gartsu, motel, errautsez estalitako txingarrak... zuri beltzez jantzitako ondakin. Ille urdinez zahartzaro eta heriotzarantz doan biziaren iduri.

Su bazterrean, etxeko barnekoitasunaren misterio-aidez inguraturik, ipuin miresgarriak, kontakizun harrigarriak loratu dira.

Goazen, orain, euskal mitologiaren atarirantz; ikus ditzagun handi-handika bertako pertsonaiarik garrantzitsuenak. Sail hone-tako maisu handi ditugun Barandiaran, Azkue eta J. Caro Baro-ja-ren lanetan bilatutako emaitz xume bat baino ez duzue hau.

### **Mitologiaren kokatzea.**

Mitologia, erlijioaren eta folkloreaken artean jartzen dute adituak. Erlijioak molde ziurragoa, arautuagoa, ortodoxoa eta erritoduna du.

Mitologiak, oster, Jainko gurtzearenkin ez du zer-ikusirik. Giza-izakeraz gain omen dauden izakien kontaketa ari da bati-pat. Folklorea, berriz, kosmogoniatik ate dauden herri-ohitura, usadio eta sinesteetan oinarritzen da.

Mitologiak bietatik du piska bat. Erlijioaren alorretik kon-daketarik harrigarrienak hartu ohi ditu; eta folkloreakenetik is-torio, ipuin eta izkutuko idea gordeak, piska bat misterioitsuak.

J. M. Barandiaran-ek kristautasunaren sarrera aintzinako mito zaharren aienatzea, Euskal Herrian ezaguna den elezahar batez adierazten digu.

Honela dio:

«Aurtzaroan maiz entzun nun Ataungo ipui zarrak diñoe-nez, ientillak Argaintxabaetako munoan, Aralar-mendin, iosta-tzen ari ziran, sortaldetik odei argi bat zetorkiela ikusi zutenean. Zekustanakin beldurtuta, agure iakintsu bati otsegin eta toki ar-tara eraman zuten odei miresgarri hura ikusi eta aren esanaia azaldu zezaien. Eta agureak esan zien: «Kixmi iaio da eta gure endarenak egin du: aldameneko amildegitik iaurti nazazute». *Kixmi*, agurearen izkeran, tximiñua zan ientillen arteko Kristo-ren gaitzizena. Orduan, odeiak atzetik zerraikela, sarkalderuntz lasterka abiatu ziran ientillak eta Arrastarango zelaitxora iritxi ziran, bat batean, arri aundi baten azpian ondatu ziran; arrez-kero arri au Jentill-arri deritza. (...). Orra nola amaitu zan ientil-aroa».

Hala ere kristautasunak ez du guztiz ezabatu aintzinateko sinesteen lorratza, ezta haien eragina ere. Guzti hori, ixil-gordeka ezkutuan eta debekupean geratu da. Baina gizarte-bizitzan eta batipat erlijio-bizitzan eragina izan ohi du eta azaleratu ere bai, lurpeko azpi-geruzak noizbehinka gainezkatzen diren antzera.

Mitologiak, aintzinate-oihalpean geratu den mundu liluragarri horretara gidatzen gaitu. Denboraren joan-etorrian mito berriak ere sortzen dira, baina hurbilekoak izanik arruntegi gertatzen zaizkigu. Mitologia, aro desberdinetan munduari, bizitzari eta gertakariei eman zaizkien azalpen magikoz ornitu da eta eten gabe ornituz doa. Herrien erlijio-sena da mitoen lurrik emankorrena.

Mendebaldeko kulturaren ardatz direnez, Grezia eta Erroma dira mitologia klasikoaren altxor-toki. Lehenaren urruntasunean sustraiak sakon dituzten herri zaharrek ere gordairu joria dute; ahozko literatura aberatsa dutenak batez ere. Besteak beste, Euskal Herria, lanbru eta lainotsu, bere lehena ere nahiko ilunpean dagoelarik; harkaitz eta mendi artean kokaturik oso berezia dugu mitologian.

### **Mari, euskal jainkosa**

Neolitiko aroaz gero, bada soro, abere, lore eta sugeen anderetzat ezagutzen den jainkosa bat. Izenak, herrien arauera, ezberdinak izan daitezke: Amma, Mah, Maia, Nanna, Nanaia etab., baina kreatzaile-ahalmen bera eman ohi zaio beti: uraren laguntzaz lurpean diren izaki guztiei ernemina berak txertatzen baitie. Jainkosa honekin badute zer-ikusirik gero Eurasian nagusituko ziren jainkosa-izenek: Maya, Venus, Demeter, Rhea, Afrodita etab. Hala ere guztiei ezarri ohi zaie eginkizun bera: neguko hotz eta euriteak igaro ondoren, landarediaren urteroko berbiztea. Jose Migel Barandiaran-ek, neolitiko aroko jainkosa-amaren eta Euskal Herriko Mariren artean kidesasun handia aurkitu du.

Mariren egoitza leize-zuloren bat izan ohi da. Noizean behin handik irten eta garrez inguraturik zeharkatzen omen du ortzea. Orduan «Sugar» deritza.

On Jose Migelek, Mari dela ta, zera dio: «Hay un genio (de sexo femenino, como la mayor parte de los que figuran en la mitología vasca) que ha logrado acaparar muchas funciones que han sido atribuidas a diversos seres míticos en otros países. Es considerado como jefe de los demás genios. Entre los componentes de sus nombres actuales el más antiguo parece ser *Mari*. Este vocablo, que en algunas partes del País significa señora y que en este sentido se aplica al parecer al personaje mítico de que hablamos, va acompañado del nombre de la montaña o caverna donde, según las creencias de cada pueblo, suele aparecer el genio».

Nolakoa da Mari? Elezaharrek Mari emakumezkotzat dute. Oso dotore jantzitako andere legez ageri zaigu gehienetan. Durangoko istorio baten arauera, apain eta eskuetan urrezko jauregi bat duela. Amezketan, lau zaldik daramaten zalpurdian jarririk ortzea zeharkatzen. Suziria bailitzan, aidea garrez gurutzatzen duen emakume-irudia izango da, behar bada, gehien errepikatzen dena. Forma hau, herrien arauera, piska 'at aldatu egiten da: Oinaten, Seguran eta Orozkon suzko glc'ho antzera ikusi izan da goiak zeharkatzen. Ataunen suzko igitaiaren taxua omen du. Markina-Xemeinen garra dariola pasatzen omen da Anbototik Gabarora. Beraz, ia beti sua da osagaia Mariren agerpenean. Noizbait haize-bolada eta odei zuria ere bai, baina bakanago. Ortzadar irudiz ere agertu izan da inoiz. Animal-irudiz sarri-sarri. Barandiaran-en eritziz, bere ohizko egoitzetan -leizeetan- animalia-irudiz agertzen omen da eta kanporatzen denean edo eta aidean zehar doanean, bestelakoz:

«Las figuras de animales, como de toro, de carnero, de macho cabrío, de caballo, de serpiente, de buitre, etc. de que nos hablan las leyendas relativas al mundo subterráneo, representan, pues, a Mari y a sus subordinados, es decir, a los genios terres-

tres o fuerzas telúricas a las que el pueblo atribuye los fenómenos del mundo. Los casos de transformación de unas en otras, mencionados en diversos relatos, confirman esta idea».

Marik, mendeko numen ugariez gainera, baitutako neska gazte bat izan ohi du bere leize-zuloan. Honi ere, haren mende atxiloturik dagoenez, Mari deritza. Baitzeko arrazoiak era askotakoak izan daitezke: gehienetan gurasoen madarikazio edo aine-nagatik izan ohi da: «Txerrenak eroango al hau» «Aidegaxtok eroango al hau!» etab. Beste batzutan gurasoen egindako promesen bat betetzearren; eta azkenez, ikusminez bere bizitokira hurbil dadina ere baitu dezake Marik. Horixe da, hain zuzen, Marikina-Xemeingo istorio batetako kasua:

Artzain zebilen neskatala bat Gabaroko koba-ahora hurbildu zen ikusminak jota. Inguratu zenekoxe Marik harrapatu zuen. Han eduki zuen berarekin goruetan eginez urte batzutan. Eziera ezin hobe eman eta eskubete urrerekin etxera bidali omen zuen.

Gezurra eta emandako hitza jatea ez du Marik ordain gabé uzten. Ahoz-ahoko esana da Marik «ezaz» ornitzen duela bere ondasundegia. Bizkai aldean «ezaz eta baiaz» ornitzen duela esan ohi da. Aintzinako pentsakeraren arauera, ekintza bakoitzari bere sari edo zigorra dagokio. Mari da berezko justizia hori beterazten duena.

Mariren ahalmenek badute eguraldiarekin zer-ikusirik: lehorteak, inetazia, ekaitzak eta uza ona haren esku zeuden. Bere ondoan maiz izaten du animalia bat; horien artean ezagunetarikoa aharia. Bere-bereak dituen bitxiak urrezkoak izaten omen dira: edalontzia eta orrazia, adibidez. Urrezko goruan urrezko haria iruten omen du. Gehienen ustez Mariren egoitza dotore apaindurik dago, urre eta harri-bitxiz gainezka. Aketegi-ko oheak urrezkoak direla diote Zegaman.

Ziortzako ipuin batek dioenez, atxiloturik izan zuen nor-



baiti eskubete ikatz eman zion Marik eta leizetik ateratzean urre distiratzu bihurtu zitzaion.

Urrezko hari-matazaz iruten omen du, errezagotz askatzearen mataza ahari baten adarretan ezarririk.

Jose Migel Barandiaran-ek zehatz bildu ditu Mariaren egoitzean zuzen portatzeko aholkuak. Hiruzpalau arau ematen dira:

-Hitz egiterakoan nola egin behar zaio; egundo ere ez zuka.

-Mariaren bisitokian ez da jarri behar, zutik egon baizik.

-Atzea eman gabe, sartzen den erara irten behar da Mariaren bisitokitik.

Han-hor-hemen Azkuek, Barandiaranek eta beste askok bildurik hamaikatzor istorio daude. Gure mendietako kobak ditu bere egoitza. Guztietarik ospetsuena Anbotoko DAMA da.

### **Laminak, sorginak, aztiak**

«Lamina» izena, dirudienez, grekotik hartua da. Haien mitologiak dioenez, Frigia-ko erregina zen; xarmanta benetan. Zeus-ek ederretsi eta bere emaztetzat hartu zuen. Emazte ohiak, baizan, -HERAK- bekaitzez eta mendekuz erreta, bere eta haren seme-alaba guztiak hil egiten ditu. Harez gero, LAMIAK herioari (balbeari) eskaintzen zizkion ahalbait eta haurrik gehien. Horregatik, dio Azkuek, ez da harritzekoa hango artistek amorruko begirakunez eta suge-buztanez irudikatu izana. Euskal Herriko laminak ez dira hain gaiztoak, ezta hain itsusiak ere; ugariak bai, ordea.

«Lamiña» izena jakineko numen bakar bati ez zaio ematen, kideasuna duten multzo bati baizik. Ia elezahar guztietan emakumezkoztzat jotzen da. Lapurdin eta Behe Nafarroan sexu bietakoak omen daude. Baita Zuberoan ere. Hemen emakumezkoa

denari LAMINA deritza eta MAIDE gizonezkoa denari. Atau-  
nen, gizonezkoa denean, INTXIXU deitzen diote. Giza-irudiko  
numen bat da, baina oinak oiloarenak, ahatearenak edo ahuntza-  
renak izan ohi ditu. Itsaserrietan emakume-irudiz eta arrain-  
isatsez ageri dira.

Jose Migel Barandiaranek dioenez, Bizkaian bakarrik kon-  
datu diote laminek bekoki erdian begi bakarra dutela.

Azkuek, laminek ahotik erditzen dutelako berria bildu  
zuen Igorren (Arratian).

Azkuek Aezkoan bildu zuen lekukotasunaren arauera, la-  
minak eta sorginak txandakatu egin ohi dira gauez: oilarrak jo  
aurretik laminak eta oilarrak joz geroztik sorginak. Laminak eta  
sorginak, dirudienez, Mariren mendekoak dira, eta beraz, euren  
berezitasunetan kidekotzat jo genitzake.

Mariren bizitokiaz esan duguna bera esan beharko genuke  
hauen bizitokiaz ere: gure mendietako leize-zuloetan bizi dira.  
Ibaietako urlo, iturbegi eta urmaelak ere gogoko zaizkie lami-  
nei. Ahoz-ahoko elezaharrek diotenez, laminak bizi izan diren  
tokiak, gerora, haien izenez geratu dira. Euskal toponimian na-  
hiko ugaria da. Batzuk bakarrik aipatuko ditut: LAMIAKO  
(Bizkaian, Algorta ondoan), LAMIARAN (Mundakan), LA-  
MINDANO (Arratian), LAMINARRIETA (Galdakao), LA-  
MIKIZ (Markina-Xemeingo baserri bat) etab.

Laminen gauzen artean urrezko orrazi bat aipatzen da. Be-  
rarekin orrazten du ile-adats luze eta dotorea. Ez da harritzekoa  
bitxi hauek zenbaitentzat tentagarri izatea eta ipuinetan maiz  
gertatzen dira ebasketak (lapurretak). Orduan, gauez, garraxika  
eta mehatxuka jotzen omen dute lapurraren etxera euren orra-  
zia eskatuz. Barandiaranek, Ataungo ipuin batetan aipatzen den  
mehatxua dakar:

«Andra Garazi, ekatzu nere orrazi  
bestela galduko dizut zure ondorengo azkazi».

Laminen eta gizakien arteko harremanei gagozkielarik, denetarik dago. Zenbait ipuinetan gizakiei laguntzen ageri zaizkigu laminak eta beste batzutan haiei laguntza eskatzen. Inoiz mutil gazteren batez maitemindurik ere agertzen zaizkigu; laminek gizakia baitzen duteneko eta alderantzizko kasuak ere badira. Gehienetan laminak gizakiaz gainetik daude, baina haien ahalmenak deuseztatzeko biderik bada. Laminak aienatzeko trikimainak era bitakoak izan ohi dira: batzuk, izpiritu gaiztoak uxatzeko erlijio ekintzak dira: «Aitaren» egitea, araoketak, errogatibak, Jainkoaren, Ama Birjinaren eta santuen izenak aipatzea etab. Besteak magikoak dira. Hauen artean zera aipatzen da: laminak ibili ohi diren ibaietan goldea pasatzea, baina Donibane egunez jaiotako bi zekorrek tiraturik.

Laminen lanik arruntenak hauek izaten omen dira: goruetan egin, trikuarriak egin, zubi ospetsuak ereiki, baita gaztelu eta jauregiak ere. Gauetan lixiba egiten ere aritzen omen dira. Aintzinako ereikuntzarik miresgarrienak, gizakiarentzat ezinezkotzat jotzen direnak, alegia, gizakiez gain dauden hauei ezartzen zaizkie. Baina laminak baino maizago jentilak agertzen dira ereikuntza haundiotan.

Mari bezala, Laminak ere «ezaz» bizi omen dira. Honela adierazten digu Jose Migel Barandiaranek: «Nekazari batek hogeï anega gari baditu, baina hamaseiren kontua bakarrik eman, gainontzeko laurak laminak jasoko ditu».

Kulturarik ezak eta teknika-bide berriak ez ezagutzeak garamatza mitoak sinestera; irudimenez izaki miresgarriok sortzera. Hala ere, gaur egun mitoak auzi-mauzitan jarri arren, oraindik orain zenbait esakera finkatu dira herriaren baitan: «Izena duen guztia omen da»; kristau-giroko pentsakera alderantzizkoa da, hain zuzen: «den guztiak izena du». Hala ere esakerarik sustraituena honako hau da: «direnik ez da sinestu behar, baina ez direla ere ez da esan behar». Ipuin hauetan, gainera, ez da ezer ziurtatzen. Kontu handiz eta zuhurtasunez jokatu ohi da auzi horietan eta txitean-pitean tartekatzen dira honelako partikulak:



«omen», «bide», «ei» etab. euskalkien arauera.

## Sorginak

Laminaren kidekoa da sorgina, baina askoz ere orokorra-goa. Sorgin izena, gizonezko edo eta -ia beti emakumezko- txar bati eman ohi zaio. Era guztitako kalteen eragile diren «parte txarreko» izakiak dira. Honako kalteak aipatzen dira gehienetan: uzta galtzea, ola eta errotetako matxurak, gaisotasunak, begizkoa, haurren heriotza misteriosak, arrantzaleen ondamendiak etab.

Herrietako sineskerien arauera, azti-hitzak esanez edo beste trikimaina batzuk erabiliz sorgindu daiteke bat. Honetaz benetan jakingarria da On Jose Migelek aipatzen diguna: sorgin bihurtzeko nahikoa omen da oinaz «Aitare» egitea aho-korapilo edo formula bitxi hau esaten den bitartean: PORLA SE, ZALPATE, FUNTE FA, FUNTE FI, TXIRI, BIRI, EKATSU, EKATSU, AMEN.

Sorginen ezaugarririk bereziena, behar bada, aldizka-aldizka batzarreak egiteko duten ohitura izango da. Horretarako egunik izendatuenak astearteak eta ostiralak dira, ilargi beteko gauak batez ere. Batzarre hauetan meza beltza ospatzen dutela esan ohi da, deabrua oroitarazten duen akerra erdi-erdiko pertsonaia delarik. Honi atzekaldean mun eginez bukatzen omen da akelarreko egitekoa. Sorginak erratz gainean hegaz, nahiz ahari edo beste animalia baten gainean ustrukulu joan ohi dira akelarrera. Aidez joan ahal izateko gorputza errautsez igurtsi edo eta ukendu berezi batez gantzutu behar da, azti-hitz hauek esane: «Sasi guztien gainetik, hodei guztien azpitik». Hitzak zuzen esan behar dira. Zenbait ipuinetan, sorgin berriak edo hartara egin gabe-koek hitzetan huts egin eta formula atzekoz aurrera esandako kasuak aipatzen dira: «Sasi guztien azpitik, hodei guztien gainetik». Orduan, sasirik sasi ibili beharraren ibili beharrez, urratu-urratu egirik iristen omen ziren batzarrera. Batzarre-toki hauei AKELARRE deritze, *akerraren larrea*. Euskal Herrian zehar to-

kian tokiko akelarreak dira, baina ospetsuena, zalantzarik gabe, Zugarramurdikoa dugu. Dimako Petralandak ere entzute handia du.

Sorginak, berean diharduenean, ia beti animalia-aren baten antza hartzen du. Katuaren irudiz agertzen zaigu gehienetan; txakurrarenez bakanago. Batzutan ahari eta txerriaren antza ere hartzen du; inoiz edo behin baita zomorroren batena ere, euli eta inurriena adibidez. Oso ezaguna da gauoro, katu-itxuran txi-minitik behera jasten zen sorginaren ipuina. Ipuin hau ere, beste guztien antzera, tokian tokiko aldaketaz, bakoitzak bere erara adierazten du. Nik W. Rollok Markina-Xemeinen bildutako erara aurkeztuko dizuet:

### Lapramendi atsue

«Markiñen Artibaiko auzunan atso bat zar samarra bizi eizan, berau sorgiñe esaten ebenez eta izena eban Lapramendiko atsue. Artibaiko auzunan Txabiñen etxien senar-emazte bi bizi zien eta emaztie gorulari ederren bat zan eta bein baiño sarrixago apalostien gizona ora junde gero be geratzen zan goruetan gogor. Gau guztixetan suburuko la(ra)tzien agertzen jakon katu zuri aundi bat eta x-px, x-px! esaten eutsenien uliek arro-arro eindde eta puzke eltzera eingo baleu lez jarten jakon eta gaiñera berba eiñ eta goruetan itxi ez. Emaztie esaten deutse gizonari jazoten jakona ta gizona urrengo gabien bera goruetan g(e)atu zan, emaztie ora bildute gero. Ostera be nun agertzen dan esandako katu la(ra)tzien bera ta ekin deutse barriketan: «bizerrak eta goruetan»? Gizonak dirautse: «katue ta barriketan»? Gizonak suteko illintixe artute jo dau katu ori lepazurrien; suburuko la-(ra)tzien gora tximistie lez iges einban. Bixamon goxien nun entzuten dan Artibaiko auzunan Lapramendi atsue eleixekuek eraindde gerrixte ausitte txarto dauela».

Barandiaranek dioskunez, Erdi Aroan sineskeria hauek herriko pertsona batzurekin lotzen ziren; bada-ezpadakotzat edo susmagarritzat jotzen zirenei ezartzen zizkien sineskeriok. Urliarengan edo sandiarengan hezur-mamitzen ziren mitoak, ondo-

rio ikaragarriak ekarrit. «Tal ocurrió en Vasconia, en forma bastante ruidosa, durante los siglos XVI y XVII (como antes en otros países de Europa) en que muchas personas, acusadas de brujería, fueron implacablemente perseguidas».

## Aztia

Ahozko euskal literaturan ez da hain ezaguna pertsonaia hau. Gaztelaniaz «hechicera» «hechicero» deritzan honetaz nahi-ko' luze dihardu J. Caro Barojak «*Ritos y mitos equívocos*» izeneko liburuan. CIRCE konplexua hartzen du abiapuntutzat. Oso hedatua eta orokorra dela dio, gizonezkoaren amodio-bizitza hortik zintzilik baitago. Emakumeak maitemindutako gizonezkoagan eragiten duen barne-zirriari *lilura*, *zoramena* deritza; 'encanto' 'hechizo' gaztelaniaz. J. Caro Barojak 'encantadora' hitza erabiltzen dela -dio- gaztelaniaz, frantsesez 'charmante' erabiltzen den bezala, *liluragarria*, *xarmagarria* adierazteko. Lehenago, ostera, XIX. mendean gehiago erabiltzen zela 'hechicera' hitza.

Idazle honek Homeroren HECATE, CIRCE eta MEDEA aipatzen dizkigu arketipotzat. Hauen bizitza eta ankerkeriak gainbegiratu batez adierazi ondoren, zera esango digu: emakumeen aztikeria belaunez-belaun, amengandik alabengana pasatzen dela, baina era berean ikas daiteken arte edo zerbait ere badela. 'LA CELESTINA' ren arrakastaren giltza hor dagokela diosku: arketipo klasiko batez baliaturik, XV. mendeko España hezur-mamitu eta pertsonaia bizi-bizi eta erreala bihurtzean. Honela bukatzen du: «Tan real que en los procesos inquisitoriales nos lo podemos encontrar representado por mujeres de carne y hueso».

Lehentxoago ikusi dugunez, gauza bera gertatzen zen sortzinekin ere.

## Basajaun edo jentilak

Aintzinako herrietan, olagizonek euren jainkoa izaten zuten; Vulcano-ren izena da ezagunena. Euskal Herrian ere horre-

lako jainkoren bat bazela dirudi. Gure matxino eta meatzarien jainko izango zen. Honen berezitasuna, gorputz-atalen bat falta izatea zen: begia, zango bat, eskua... Su biziaren ondoan lan egin beharrak beti dakarren arriskua maingutze edo ebaketarena da. Greziako mitologian ziklope olagizonak erraldoiak ziren. Alemania eta Escandinavia-ko elezaharretan, ostera, epotx antzera ageri zaizkigu. Gorputzez txikiak izanik, errezero moldatuko ziren lurpeko zuloetan. Gixon ttikiok mailu-hotsean eten gabe igaroten omen zuten eguna. Ez dago zalantzarik euskal mitologiako pertsonaia hauek ez direla Nibelungoen kidekoak, Polifemoren kidekoak baizik.

Aintzinatean berez-berez sortzen dira erraldoi harrigarri hauen mitoak. Grezian, aidibidez, lehenengo hirien benetako historiari ez zenez, ziklopeen mitoa asmatu zuten, hirien sorrera haiei ezarriz. Horrela, bidé batez, erraldoien askazi itzela berbiztu zuten. Baina mito hauek irudimen-indarrez sorturik, suntsitu ere horrelaxe errez-errez suntsitzen ziren histori-kritikak hartaraturik. Kritikak zera dio: Pelasgoak zirela Samotrazia. Lemnos eta Mazedoniako meatzetan ihardun zuten olagizor: errime eta trebeak. Beste horrenbeste esaten da Peloponeso Trazia, Asia Txiki eta Siziliako ziklopeez ere. Argi biribil handia bekoki erdian zutela sartzen omen ziren lurpean; hortik «ziklope» izena. Horrela sortuko zen ziklopeek bekoki erdian begi borobil bakarra zuteneko sinestea.

Siziliako uharteari «Ziklopeen uharte» zeritzan, hauek izan baitziren hango lehen biztanleak. Dena dela, auzi honetan ere ez datoz guztiak bat. Oraingo mitologilari batzuk, erraldoi itzel haiengan sumendien irudipena ikusi dute, euren erdiko begi bakar eta guzti, sumendiaren ahoa (kraterra) adierazi nahirik. Kontuan hartzekoa da elezahar harrigarri hauen guraso ez direla historilariak, ezta teologoak ere, irudimen joridun poetak baizik.

Homerok ziklopeei ezarten dizkien eginkizunez gainera, euskal basajaun eta jentilek badute beste egitekorik: lehen nekezariak ditugu. Berauengandik ikasten dute gizonek trikimailuz,



laboreak hartzeko bidea. Lehen errementari eta errotari ditugu. Gizonak zerra, errotarria moldatzeko eta metalgintzako sekretua ebatsi zien. Gure baso eta kobetan bizi den artzain gizajale antzera ere agertzen zaigu; hortik «Basajaun» izena. Barandiaranek dioenez, giza-irudiko gorputz handikoa da, eta ilez estalirik agertzen da. Bere ile-adatsa aurre aldetik belaunetaraino heltzen zaio aurpegia, bularra eta sabela estalirik. Artaldean babesletzat jotzen da. Basajauna, indar izugarri eta mugikortasun harrigarri-dun izaki gaizto ikaragarritzat adierazten da batzutan. Ipuinik gehienetan begi bakarrez ageri zaigu, baina batzutan itsu ere bai. Orduan erestun miresgarri batez baliatzen da atxiloturik ditue-nak bere menpean eukitzeko.

«Basajaun» izenaz gainera, «jentila» ere esaten zaio; kristauen aurrez-aurre ikusten dugu sarritan. Behar bada ingurune horretan emango zaio «jenti» izena, «kristau» izenari kontrajarririk. Kristauek, trikimailuz eta maltzurkeriaz menderatu ohi dute jentila. Ilenti gori bat begi bakarrean sarturik jentila ezertarako ez dela utzi duteneko kasuak ugari dira. Markina-Xemeinen bil-duriko ipuinean ere horixe kontatzen da. Beste batzutan kris-tauek, maltzurkeriaz, euren langintzetako sekretuak ohostutzen dizkiote. Holakoetan datorren pertsonaia San Martiniko da.

Numen hau Polifemoren kidekoa da bete-betean. Hona zer dioskun J. Migel Barandiaranek: «Por el tema mismo y por los detalles relativos a TORTO, y aún por el nombre de TARTALO se ve uno forzado a equiparar este genio a Polifemo, de quien nos da noticia Homero en su «Odisea».

Markina-Xemeingo ipuinean ez dator TARTALO izenez, «ALARABI» izenez baizik, eta artzain gizajale lege. Bertako beste ipuin batetan «EULISKI» deritza, baina hau erraldoi ongi-lea da, gauza harrigarriak burutzen dituena. Egarri zenean, oin bata Maxen (Kalamuan) eta beste Urregarain jarritz, ur gazia edaten omen zuen Ondarroako itsasoan. Behin itsas gainean beltzunetxoren bat ikusi eta zurrutada batetan irentsi omen zuen eulia zelakoan, baina arran-txalupa bat izan..!

## «URTZI» goiko jainkoa

Zeru aldea eskuragaitz bezain harrigarria denez, aintzinateko sineste askoren sorburu izan da. Herri guztiek sinestu dute beste guztien gain den jainkoren bat. Grezian ZEUS zen; Erroman JUPITER etab. Euskal Herrian «URTZI» izan dela dirudi. «En el cúmulo de nombres, creencias y mitos vascos existen numerosos elementos de la mitología indoeuropea. Tales son, por ejemplo, los que se refieren a la divinidad celeste, es decir, al firmamento divinizado» (J. M. Barandiaran «*Diccionario de Mitología Vasca*»).

Konpostelako XII. mendeko kodizean Aymerix Picaud-en lekukotasun adierazgarria dugu, euskaldunek Jainkoari «URCIA» zeritzela esanez. Goiko elementu batzuk izendatzeko ere baliatzen gara izen honetaz. Adibidez zerua, tximista, trumoia, egunsentia eta erromako zubia izendatzeko, beste izen batzuren artean. Baita asteko egun batzuk izendatzeko ere: «ortzegun» (gaur «ostegun»), «ortziral» (gaur «ostiral»). «Ortzegun» edo «ostegun» latinoen «Dies Jovis»en parekoa da.

On Jose Migelek «urtz-», «urz-», «ost-» sustraiko hitzak eta «in-» sustraikoak balioa berekutzak ditu. Batzuak eta besteak erabiltzen direneko ingurunea (kontextoa) ere berdintsua dela dio. Hor ditugu, adibidez, erro hori duten hainbat hitz: «inusturi» = trumoia, «iñestu» = tximista, «iñetazi» = txingorra, «indriska» = euri zaparrada, «intz» / «iñontz» = 'rocío' etab.

Luis Baraiazarra

Bibl: J. M. BARANDIARAN: *Diccionario de Mitología Vasca*  
R. M. AZKUE: *Euskalerriaren yakintza II.a*  
J. CARO BAROJA: *Ritos y Mitos Equívocos*  
W. ROLLO: *The basque Dialect of Marquina*